



## Memoria **2011**

Memoria  
**2011**

# AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	5
2. URAREN EUSKAL AGENTZIA-URA	8
2.1 Eginkizunak	9
2.2 Xedea	12
2.3 Ikuspegia	14
2.4 Balioak	17
3. GOBERNU, KUDEAKETA ETA AHOLKULARITZA ORGANOAK	16
3.1 Kudeaketa organoak	20
3.1.1 Eremuko zuzendaritzak	21
3.1.2 Arroen Bulegoak	22
4. ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUAK	21
4.1 Plantilla	24
4.2 URaren aurrekontuak	24
4.2.1 Ustiapen-aurrekontua	24
4.2.2 Kapitalaren aurrekontua	25
5. JABARI PUBLIKOAREN KUDEAKETA	24
5.1 Hobetzeko jarduketak	27
5.1.1 Arduradunen hasiera	28
5.1.2 Espedienteen kudeatzailea ezartzea	29
5.1.3 Prozeduren eskuliburua	30
5.1.4 Plan Hidrologikoaren araudia	
5.1.5 Itsasotik lehorrerako isurketen dekretuari buruzko proiektua onartzea	31
5.1.6 Hornidura eta Saneamenduaren Esparru Erregelamendua	31
5.1.7 Ikuskaritza eta Laborategirako hobekuntzen diseinua	32
5.2 Baimen eta emakiden arloa	33
5.2.1 Lan-baimenak UJPan eta zaintza-aldean	34
5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan	35
5.2.3 UJP okupatzeagatiko kanona	36
5.3 Ur-aprobetxamenduak	37
5.3.1 Uraren Kanona	39
5.4 Ibilguak mantentzeko zerbitzua	40
5.5 Isurketen arloa	44
5.5.1 Isurketa-baimenak	45
5.5.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua	46
5.5.3 Isurketak kontrolatzeko kanona	46
5.6 Ikuskaritza-arloa eta laborategia	47
5.6.1 Ikuskaritza-arloa	48
5.6.2 Laborategia	50

<b>6. PLANGINTZA ETA LANAK</b>	<b>49</b>
6.1 Plangintza Hidrologikoa	52
6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa	53
6.1.2 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak	56
6.1.3 Informazio-sistemak	57
6.1.4 Diru-laguntzen kudeaketa eta lankidetzak-hitzarmenak	58
6.2 Ebaluazioa	59
6.3 Uholde-arriskua	62
6.4 Lanak	64
<b>7. ERAKUNDE HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA</b>	<b>65</b>
7.1 Uraren Euskal Agentzia-URaren komunikazioa	68
7.2 Sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzak	70
7.2.1 On Line ikastaroa: Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa	71
7.2.2 Ibaiari buruzko ikasgelak eta dibulgaziozko hitzaldiak	71
7.2.3 Diru-laguntzak	71
7.3 Nazioarteko lankidetzak	72
7.3.1 URaren parte-hartzea Europa eta mundu osoko Eskualdeetako Gobernuen Sareetan (Encore eta nrg4sd)	73
7.3.2 PNUD eta ART/PNUD: Nazio Batuen Garapenerako Programak	75
7.3.3 World Water Week	77
7.4 Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak	78
7.4.1 Bisita Getxoko Gobela ibairen inguruan Jolaseta eta Leioako zubietan uholdeei aurrea hartzeko egin diren obretara	79
7.4.2 Gatz larrainak ematea gatz haranean	80
7.4.3 URAk, Uraren Euskal Agentziak, Bidasoa, Nive eta Nivelte arroetarako plangintza hidrologikoari buruzko jardunaldi teknikoa antolatu zuen	81
7.4.4 Bilboko Triatlona 2011	82
7.4.5 URA, Uraren Euskal Agentzia, "Ibaiak bizitzeko" gazte-foroarekin	83
7.4.6 Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Ur Konfederazioak urpean geratzeko arriskuei buruzko Jardunaldi Teknikoa antolatu zuten	84
7.4.7 Uraren Mundu Eguna	84
7.4.8 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa	85
7.4.9 EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen bilerak.	86
7.4.10 Udalsarea 21	87
7.4.11 URA - Uraren Euskal Agentziak Ecoeuskadi 2020 Euskadiren Garapen Iraunkorrerako Estrategian parte hartu du	88
7.4.12 Uraren eta saneamenduaren kudeaketa Arabako Kontzejuen ikuspegitik	88



A diskide maiteok:

Honen bitartez URA Uraren Euskal Agentziaren 2011 aldiko memoria aurkezten dizuet, urte hauetan egindako lan eta ekintza nagusiak biltzen dituen. URA Eusko Jaurlaritzaren erakunde bat da, Euskadiko ur-politika kudeatzeaz arduratzen dena Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Ur Sailari atxikita dago, eta Foru Aldundiek ere parte hartzen dute haren gobernu organoan.

Urte hauetan, Agentzia erreferentziazko administrazio bihurtu da dagoeneko EAEko uren arloan, eta, ildo horretan, politika modernoa bultzatu du, arazo nagusiak konpontzeko ingurumena zainduz eta parte-hartzean oinarrituz.

URA Agentzian dihardugunok memoria hau irakurtzera gonbidatu nahi zaitugu; behin irakurketa amaiturik, bidali diezazkiguzu, mesedez, zure iritzi eta iradokizunak, ezbairik gabe gure eguneroko kudeaketa hobetzeko lagungarri izango direlako.

IÑAKI URRIZALKI OROZ.  
ZUZENDARI NAGUSIA



1

**Aurkezpena**

URA Uraren Euskal Agentziaren helburua Euskadin uraren politika kudeatzea da.

Agentzia Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bitartez sortu zen, eta zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publikoaren izaera juridikoa du, nortasun juridiko propioa izanik. Eusko Jaurlaritzan ingurumen-arloan eskumenekoa den sailari atxikita dago.

URA sortu da Europar Batasunaren Uraren Esparru Zuzentarauaren eskakizunak betetzeko helburuarekin, hau da, 2015eko abenduaren 31a baino lehen azaleko zein lurpeko ur-masa guztiak egoera onean egon behar dutela aintzat hartuta. Hori guztia Uraren Euskal Legearen testuinguruan, Estatu espainolak Europako Zuzentzaraua bereganatu aurretik onartu zena, eta ur-ingurunea babesteko politika integrala ahalbidetzeko helburua duena. Horretarako, Agentziak koordinatu eta bateratu egiten ditu foru-administrazioek eta autonomia-erkidegoaren administrazioak uraren kudeaketan eta administrazioan dituzten eskumenak, baimenei, emakidei eta diziplina hidraulikoari dagokienez Uren legea onartu arte indarrean zegoen eskumen-sakabanaketa saihestuz.

Uraren Euskal Agentziaren jardun-ildo nagusiek honako helburu hauek lortu nahi dituzte:

- EAEko ur-masen egoera ekologikoa hobetzea.
- Hornidura unibertsala lortzea, behar adinako kantitatean eta kalitatean.
- EAEn saneamendu-planak gauzatzea.
- Ura eraginkortasunez administratzea, behar adinako masa kritikoa duten ur-erakunde kudeatzaileen jarduna indartuz.
- Ur-baliabideak ikertzea eta era iraunkorrean aprobetxatzea.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko jardunak egitea.
- Uraren eremuan berrikuntza teknologikoa sustatu eta bultzatzea.
- Informazioa eta prestakuntza, uraren kudeaketan inplikaturako giza baliabideen maila igotzeko.
- Nazioarteko ekimenetan laguntzea, uren arloan milurtekoaren helburuak lortzeko.

2

URAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
URA





# 2.1

Eginkizunak

## 2.1 Eginkizunak

Agentziak 1/2006 Legearen 7. artikuluan jasotako eginkizunak betetzen ditu, hau da:

- Lege horretan plangintza hidrologikoan jasotako tresnak egitea eta Jaurlaritzaren esku uztea, onartu, aldatu edo izapide daitezen eskumeneko agintarien aurrean.
- Erkidego arteko arroen estatu-plangintza hidrologikoan parte hartzea, araudi erregulatuarekin bat etorritik.
- Jabari publiko hidrauliko babesteko esku-hartzea, bereziki emakidea eta baimen administratiboak emanaz, baina baita jabari publiko hidraulikoa zainduz, ikuskatuz eta, era berean, araudi erregulatuarekin hausten dutenak zehatuz.
- Bere jardun-eremuei dagozkien gaien xedapen orokorrekin buruzko proiektuak egitea eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko agintariei bidaltzea.
- Estatuko Administrazioak transferitutako, eskuordetutako edo agindutako eskumenak.
- Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- Ur Erregistro Orokorraren antolamendu eta funtzionamendua.
- Eremu Babestuen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamendua.
- Kanon edo zergen aplikazioari buruzko azterlan eta txostena, indarreko araudiarekin bat etorritik.
- Indarreko legerian urei dagokienez ezarritako zergak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- Plan orokor, arau subsidiario, plan partzial edota plan berezietan buruzko txosten loteslea ematea, hasierako onarpenaren ostean. Txosten espezifikoak da, udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babes eta erabilaren arteko harremanari buruzkoa, eta ez dio kalterik egiten sektore- edota ingurumen-arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste lege batzuek ezarritakoari. Txostena aldekoa izango da baldin eta bi hilabeteko epean ematen eta jakinarazten ez bada.
- Jaurlaritzari uholdeak gerta daitezkeen eremuetan beharrezkotzat jotzen diren erabilera mugak ezar ditzala proposatzea, pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko.
- Lehorretik itsasora isurtzeko baimena ematea.

- Itsas-lehorreko zortasuneko eremuetarako baimena ematea, eremu horiek zaindu eta ikuskatzea eta dagozkion zehapenak ematea.
- Bere eskumeneko gaiekin zerikusia duten diru-laguntzak ematea.
- Lege eta erregelamenduek esleitzen dizkioten gainerako eginkizun guztiak, hornidurako, saneamenduko eta ureztatzeko politikari dagokionez bereziki, baita kudeaketa-organo eta erabiltzaile-komunitateen gaineko kontrola eta esleitzen dizkioten gainerako guztiak ere.
- Jabari publiko hidraulikoaren babeseta eta kontserbazioa bermatzea, gai horretan eskumenak dituzten administrazioekin koordinatuta.

	URA	Foru Aldundiak	Toki Admin.
Plangintza			
Baimenak eta emakidak			
Zaintza eta zehapena			
Kanonak eta tasak			
Interes orokorreko obrak			
Lurralde historiekoe-tako interesgarriak			
Hornidura eta sanfamendua			



A close-up photograph of a waterfall cascading over dark, mossy rocks. The water is clear and turbulent, creating white foam and splashes. The background is filled with the dense, green foliage of trees, with some branches and leaves visible in the upper portion of the frame. A semi-transparent blue rectangular overlay covers the bottom half of the image, serving as a background for the text.

2.2

Xedea



## 2.2 Xedea

- Agentziaren xedea da Euskadin uraren politika aurrera eramateko Eusko Jaurlaritzaren tresna nagusia izatea, Uraren Esparru Zuzentzailearekin bat etorriz. Horrek esan nahi du ur masen kalitatearen, kantitatearen eta egoera ekologiko egokiaren alde egitea, eraginkortasunez eta gainerako administrazioekin eta uraren erabiltzaile guztiekin elkarlanean.
- EAEko herritar guztiek ura behar adinako kantitatean eta kalitatean eskuragarri dutela bermatu behar du Agentziak, ingurumena zaindu eta errespetatzen duen esparru batean.
- Uholde-arriskua prebenitu eta zuzentzeko ekintzak sustatu behar ditu.



# 2.3

Ikuspegia

## 2.3 Ikuspegia

- **P**olitikak ezartzea: ura baliabide publikoa dela aintzat hartuz, uraren kudeaketa iraunkorra eginez, eta, une oro, premia handiena duten tokiekiko bidezko elkartasuna sustatuz.
- Zerbitzu-ematea: erabiltzaileenganako hurbiltasuna, bizkortasuna, gardentasuna, eraginkortasuna eta zerbitzura iristeko erraztasunak.
- Baliabide propioen kudeaketa: pertsonen garapenerako ekintzak ezartzea eta baliabide materialen kudeaketaren eraginkortasuna.
- Gizartearen alde egitea, ur baliabideari eta baliabidearen kudeaketari buruzko informazioa eta jakintza sortuz erabateko gizarte-erantzukizuneko ikuspegi batetik.





2.4

Balioak

## 2.4 Balioak

- Prestakuntza-maila handiko profesionalen taldea.
- Talde-lana, koordinazioa, administrazio arteko lankidetzak, gardentasuna eta pertsonen parte-hartzea.
- Mugape hidrografikoen kudeaketa eta plangintzaren batasuna errespetatzea.
- Tratamendu eta plangintza integrala, uraren ekonomia, baliabidearen iraunkortasuna.
- Uraren kudeaketa publikoa lurraldearen antolamenduarekin eta ingurumenaren kontserbazio, babes eta berritzearekin bateragarri egitea.
- Prebentzio-politika, urak eragindako uholde eta hondamendien aurrean.
- Elkartasuna, erantzukizuna, eta uraren erabilzaileak uraren erabilera eta kudeaketan eragindako kostuak ordaintzea.
- Jende guztiak ur-gaiei buruzko informazioa eskuragarri edukitzea.
- Ura merkatuaren legeez eta salerosketa libreaz aparteko ondasun publikoa delako iritzian oinarritutako politika.
- Hornidurako, saneamenduko eta arazketako zerbitzu publikoak eraginkortasunez eman daitezela sustatzea.

3


**Gobernu,  
kudeaketa eta  
aholkularitza  
organoak**

URA Uraren Euskal Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, 2006ko ekainaren 23an Eusko Legebiltzarrak onartutako Uraren Euskal Legeak sortua. Eusko Jaurlaritzaren ngurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikita dago, eta 2008ko urtarrilaren 1etik Uren Zuzendaritzako partaide da. Uren Zuzendaritzak 1994tik darama jardunean, hain zuzen ere transferentzia gertatu zen uneaz geroztik. Nolanahi ere esan beharra dago URA Eusko Jaurlaritzaren politika hidraulikoaren tresna ez ezik, hiru Aldundien tresna ere badela, arlo horretan eskumenekoak izaki agentziaren Administrazio Kontseilua ere osatzen baitute modu paritarioan.

Beraz, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien ordezkariak osatzen dute Administrazio Kontseilua, modu paritarioan, eta gainera, URA agentziak parte-hartze eta aholkularitzarako beste bi organo ditu.

Erabiltzaileen Batzarra, Eusko Legebiltzarraren, Eusko Jaurlaritzaren, hiru Foru Aldundien, ur-alorreko eskumeneko Ministerioaren, lurralde historikoetan kokatutako erakunde hornitzaileen, EUDELe izendatutako tokiko administrazioen eta erabiltzaileen ordezkariak biltzen dituena.

Uraren Kontseilua, non Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek, Eudelek izendatutako toki-administrazioek, erabiltzaileek, Ur eta Kosten alorreko eskumeneko Ministerioak, naturaren defentsaren aldeko elkarteek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hartzen dute parte.







# 3.1

Kudeaketa  
organoak




## 3.1 Kudeaketa organoak

### 3.1.1. Eremuko zuzendaritzak


Uraren Euskal Agentziaren lan-arloak lau Zuzendaritzatan antolatzen dira, zuzendari nagusiaren mendean:

- Plangintza eta Lanen Zuzendaritza
- Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritza
- Berrikuntza eta Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritza
- Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritza



### 3.1.2. Arroen Bulegoak

Gainera, Agentziak hiru lurralde-bulego ditu, hiru hiriburuetan: Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Bilbo), Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoa (Donostia) eta Mediterraneoko Arroen Bulegoa (Gasteiz).



4

**Administrazio  
eta zerbitzuak**

## 4.1 Plantilla

158 langilek osatzen dute Uraren Euskal Agentzia. Gehienak Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Uren Zuzendaritzako kideak izandakoak.

2011. urtean URAko egoitza nagusia Minaoko Parke teknologikotik Gasteizera mugitu zen.

KATEGORIA	2011/12/31n
Zuzendaritza Nagusia	1
Arloen Zuzendaritza-Bulego buruzagitzak	7
Teknikariak eta bitarteko agintariak	114
Administrariak	36
GUZTIRA	158

## 4.2 URAREN aurrekontuak

### 4.2.1 Ustiapen-aurrekontua

GASTUAK	2011
LANGILEEN GASTUAK	8.157.925
FUNTZIONAMENDU GAS-TUAK	7.138.843
GUZTIRA	15.296.768

SARRERAK	2011
EJren USTIAPENERAKO DIRU-LAGUNTZAK	11.164.331
SARRERA PROPIOAK	4.132.437
GUZTIRA	15.296.768


## 4.2.2. Kapitalaren aurrekontua

INBERTSIOA	2011
Antolatu, ubideratu eta uholdeen aurka babesteko lanak	20.286.854
Hornidura eta saneamenduko lanak	12.823.700
Hirugarrenei emandako dirulaguntzak	2.553.441
GUZTIRA	35.663.995

5

**Jabari  
publikoaren  
kudeaketa**





# 5.1

Hobetzeko  
jarduketak

## 5.1 Hobetzeko jarduketak

2011. urtean, jabari publikoa kudeatzeko arloan honako hobekuntza-jardun hauek gauzatu dira, besteak beste:

- Baimen, Emakida eta Isurketen arduraduna eta Ikuskaritza arduraduna jardunean hasi dira.
- Aprobetxamendu eta Zigor espedienteen kudeatzailea ezarri da. Obra-baimenen arloko espedienteen kudeatzailea hobetu eta finkatu da eta fluxugramak, agiriak eta abar garatu dira Isurketen arloa Kudeatzailean ezartzeko.
- Ur Jabari Publikoa Kudeatzeko Prozeduren Eskuliburua idazteko lanak.
- Itsasotik lehorrerako isurketen dekretuari buruzko proiektua onartu eta izapidetzen hasi da.
- Hornidura eta Saneamenduaren Esparru Erregelamenduaren zirriborroa garatu da.
- Ikuskaritza eta Laborategirako hobekuntzak diseinatu dira.

Jarraian, jarduketa guztiak deskribatuko dira.

### 5.1.1 Arduradunen hasiera

2011ko ekainaren 20an Iñaki Urrutia Garayo hasi zen lanean, Ikuskaritza eta Laborategiko arduradun bezala.

Halaber, 2011ko uztailaren 4an Aitor Beldarrain ekin zion lanari, Baimen, Emakida eta Isurketen arduradun gisa.



## 5.1.2 Espedienteen Kudeatzailea ezartzea

Funtsezko tresna jabari publikoa kudeatzeko espedienteak izapidetzean. Honako hauek ahalbidetuko ditu:

- URA agentziarako espedienteak izapidetzeko prozedura bakarra.
- Espediente baten edozein dokumentu edo izapide erakunde osoarentzat ikusgai jartzea.
- Izapidearen eta izapide-dokumentuen hobekuntza optimizatzea.
- Espedientearen kontrola. Epeak amaitzeagatik abisua sortzea.
- Espedienteen administrazio-izapideko urrats guzti-guztietan arduradunak zehaztea.
- Estatistiken eskuragarritasuna (memoria eta abar).
- Sarrera eta irteeren erregistroarekiko konexio automatikoa eta eskaneatutako dokumentuak erregistrotik espedienteen kudeatzailean lekualdatzea.
- Erregistroak automatikoki sortzea: Ur-erregistroa, GIS.
- Isurketa kontrolatzeko kanona, UJP okupatzeagatik kanona, UJP aprobetxatzeagatik kanona eta uraren kanona bezalako lotutako bestelako izapidetzearako datuak automatikoki ateratzea.

2010eko azaroan, ur-jabari publikorako nahiz itsas-lehorreko babes-zortasunerako obra-baimenen arloko espedienteen kudeatzailea ekoizten hasi zen. 2011ko uztailean, Aprobetxamenduen Arloak ekin zion ekoizteari, tartean ur-emakiden izapidetzea eta erabilera pribatiboen aprobetxamenduak, zein aprobetxamendu horietan egin beharreko aldaketak barne hartuta. 2011ko urrian zehar, jarduketa-mota guztietarako (lanak, isurketak, aprobetxamenduak, nabigazioa, etab.) zigor-espedienteak ekoizten hasi ziren, nola UJP hala itsas-lehorrerako.

### 5.1.3 Prozeduren eskuliburua

Ur-jabari publikoa kudeatzeko prozeduren eskuliburua sortzeko lanekin jarraitu da. Batez ere honako hauetan egin da aurrera: baimenak izapidetzeko prozeduren eskuliburuan UJPn eta horri lotutako zerrendetan.

Espediente guztiak izapidetzeko eskuliburua funtsezko tresna izango da, izapidetze horien irizpideak argitu eta bateratzeko.

2011. urtean zehar, espedienteen kudeatzailearen ezarpenaz baliatuz, bildu eta zehaztu dira jabari publikoa kudeatzeko izapidetzeetan erabiltzen diren prozedurak (fluxugramak), txantiloiak, irizpideak eta jarraibideak (onartutakoak eta onartzeko zain daudenak).

Prozedura horiek honako lau familia hauetan banatu dira:

- Obren familia.
- Aprobetxamenduen familia.
- Isurketen familia.
- Zigor-espedienteen familia.

Halaber, Ikuskatzeari, espedienteen izapidetzeari eta Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzak Plangintza eta Lanen Zuzendaritzarekin eta Administrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzarekin duen harremanari buruzko informazioa bildu da.

Eskuliburu bat sortu da, izapidetze bakoitzari atxikirik dauden dokumentuak kodetu dira eta dokumentu horiek bateratzeko ereduak dokumentu bat sortu da.

Irizpideak bateratzeko lanen barruan hainbat jarraibide idatzi dira 2011. urtean zehar, eta tartean:

- 1/2011 Instrukzioa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, obrak geldiarazteko prozedura arautzen duena.
- 2011ko urriaren 19ko Instrukzioa, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiarena, plangintza xehekatuko hirigintza-txostenak Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendariak sinatzeko egoitza nagusira bidaltzeko modua arautzen duena.
- Laginketen parametroak eta aldizkakotasunak HUAko isurketa-baimenei dagozkien autokontrolak.

## 5.1.4 Plan Hidrologikoaren araudia

Plangintza eta Lanen Zuzendaritzarekin koordinatuta, Plan Hidrologikoaren Araudiaren idazketarako ekarpenak egin ziren 2011. urtean zehar. Ondoren, 2011n zehar, Herri Administrazio eskudunen plan hidrologikoen integrazio harmonikorako prozesuaren barruan (Euskadi barneko Arroen Plan Hidrologikoa eta Kantauri Ekialdeko Mugapearen Espainiar zatiko Erkidego arteko Arroen Plan Hidrologikoa), Araudiaren inguruko hainbat alderdiri lotutako bilera ezberdinetan esku hartu zuen Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzak.

## 5.1.5 Itsasotik lehorrerako isurketen dekretuari buruzko proiektua onartzea

Aldez aurretik, dekretuaren zirriborroaren inguruan lan egin da. Horren aplikazio-eremua EAE izango da lehoretik itsas-lehorreko jabari publikora egindako hondakin-uren isurketetarako. 2011ko ekitaldian zehar URAn eta beste esparru batean areagotu egin dira lanak, eta honako hauek izan dira ekintzarik garrantzitsuenak

- 2011ko uztailaren 26an, sailburuak hasierako agindua eman zuen araua egiten hasteko.
- Legesarean dekretuaren proiektua azaldu da.
- Aldez aurreko onespeneraren agindua 2011ko irailaren 9koa da.
- Saileko Zerbitzu Juridikoak dekretua idatzi eta onartu du eta jendaurreko informazioaren eta entzunaldikoaren fasea 2012ko hasierarako geldituko da.

Dekretuaren helburua izango da:

- Administrazio-neurriak ezartzea lehoretik itsasora egiten diren isurketen ingurumen-baimenen eta -arabidearen esparruan.
- Ekonomia- eta finantza-erregimena garatzea.
- Esparruko zehazpen-arabidea garatzea

## 5.1.6. Hornidura eta Saneamenduaren Esparru Erregelamendua

2010. urtean ekin zion lanari, hornidura eta saneamenduaren esparru-erregelamenduaren zirriborroak idazteko URAk zuzendutako lantaldeak, izan ere, Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legean ezarritako helburuetako bat hornidura, saneamendu eta arazketaren arau orokorrak zehaztea baita.

2011ko abuztuak Hornidura eta Saneamenduaren Esparru-Erregelamenduaren Lehen zirriborroa bidali zen.

## 5.1.7 Ikuskaritza eta Laborategirako hobekuntzen diseinua

Ikuskaritza eta laborategiaren arloko 2011ko hobekuntza-jarduketa nagusiak ondorengoak izan dira:

- Ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako prozeduren gidaliburua.
- Ikuskaritza-lanen plangintza espedienteen kudeatzailearen bitartez egitea.
- Ikuskaritza eta laborategirako hobekuntzen diseinua.



# 5.2

Baimen eta  
emakiden  
arloan

## 5.2 Baimen eta emakiden arloa

2011. urtean zehar, baimen eta emakiden arloko 6 koordinazio-bilera egin dira, eta horietan, funtsean, honako gai hauek jorratu dira:

- Espedienteen kudeatzailea ezartzea.
- Izapidetze-irizpideak bateratzea.
- Ur-jabari publikoko eta itsas-lehorreko zortasun-eremuetarako baimenen prozedurari buruzko eskuliburua.
- Plangintza eta Obren Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu da azterlan hidraulikoak eta horiek Arroen bulegoetatik egoitza nagusira bidaltzeko protokoloa onartzeko.
- UAPEE eremuetan baimenak izapidetzeko jarduteko moduari buruzko eztabaida.
- Obra txikiak izapidetzeko prozedura.
- TRAGSATEC, S.A.ri baimenak izapidetzerakoan laguntza zehatza emateko eskatu zaio.

### 5.2.1 Lan-baimenak UJPan eta zaintza-aldean

Lan-baimenak izapidetzearen helburu nagusia zera da: jabari publikoan edo horren ingurunean (zaintza- eta zortasun-eremuak) lanak eta jardunak egikaritzeko baldintzak ezartzea, ur-masak honda daitezen saihestuz eta hobe daitezen ahaleginduz.

Arroen bulegoetako arduradunek baimenak izapidetzen dituzte, eta kontrola eta jarraipena egin dute administrazio eta partikularrek jabari publiko hidraulikoan eta ibilgu-zaintzako eta zortasuneko eremuetan egindako jardun eta obrei dagokienez.

2011. urtean lanak egiteko 613 espediente hasi dira (urbanizazioak, eraikuntzak, landaketak, mozketak eta abar) eta 365 ebatzi. Gainera, partikularrek, administrazioek edo enpresek egindako 127 kontsultari eman zaie erantzuna, alde zuzenetik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Gainera, arroen bulegoek guztira 75 hirigintza-txosten egin dituzte, beste administrazio batzuen izapidetzeen barruan egindako eskaerei erantzunez edo udalek, aldundiek edo sustatzaileek egindako eskaerei erantzunez.

2011. urtean, Zadorra Sistemako urtegi-tako nabigazioaren jarraipena egin da, eta bereziki udaran zaindu dira Uribarri-Ganboa eta Urrunagako urtegiak. Mediterraneoko arroetako bulegoak nabigazioko 109 erantzukizun-aitorpenen jarraipena egin du.

Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 147 salaketa jaso dira guztira.

Indarreko legegintza-esparruaren barruan, 47 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik edota jabari publiko hidraulikoari eragiteagatik.

Zeregin horiei dagokienez esan beharra dago ez dela batere erraza bulego horietako langileek hirugarrenei arreta eta aholku emateko egindako lanak kuantifikatzea, baina argi dago oso ugariak izan direla.



## 5.2.2 Lan-baimenak itsas-lehorreko zortasun-eremuan

Ekialdeko Kantauriar Arroen Bulegoak eta Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoak baimenak izapidetzen dituzte eta administrazio eta partikularrek jabariari eta itsas-lehorreko jabari publikoaren babes-zortasuneko eremuei dagokienez egindako lana eta jardunen kontrola eta jarraipena egiten dute. Gainera, itsas-lehorreko jabari publikoan egindako jardunei buruzko txostena ematen dute.


2011. urtean 90 espediente hasi eta 38 ebatzi dira. Gainera, partikularrek, Administrazioek edo enpresek egindako 20 kontsulta-espediente hasi eta 13ri eman zaie erantzuna, aldez aurretik adierazitako eremuetan egin beharreko jardunen inguruan.

Halaber, arroen bi bulegoek 125 txosten eman dituzte.


Bestetik, partikularrek baimenen baldintzak ez betetzeko aukerari, arau-hausteei eta abarri buruz egindako 55 salaketa jaso dira guztira.

Gainera, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, zehapen-espediente 1 irekitzeko proposamena egin da, lanak administrazio-baimenik gabe egikaritzeagatik eta/edo itsas-lehorreko jabariari eta zerrenda elkartuei eragiteagatik.

Ur Jabari Publikoa



Itsas-lehorreko zortasun-eremua



### 5.2.3 UJP okupatzeagatiko kanona

Jabari publiko hidraulikoaren okupazioari edo erabilerari okupazio-kanonaren zerga ezartzen zaio, jabari hori babestu eta hobetzeko. 2012. urtean, 2011ko ekitaldiari dagokion okupazio-kanonagatik 116.885 € bilduko direla aurreikusten da.





# 5.3

Ur-aprobetxamenduak

### 5.3. Ur-aprobetxamenduak

Ur-aprobetxamenduak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikotik ura hartzeko zer baldintza bete behar diren ezartzea, lehenetsun-ordenari jarraiki eta aprobetxamendu horiek ur-masen egoerari kalterik eragin diezaioten saihestuz.


Mendebaldeko Kantauriar eta Ekialdeko Arroen Bulegoek (Erkidego Barneko Arroetan) ur-aprobetxamenduen espedienteak izapidetzen eta horien jarraipena eta kontrola egiten jarduten dute. 2011. urtean ur-aprobetxamenduen inguruko 50 espediente berri hasi dira.

Bestalde, epealdi berean 35 erregularizatzeko-espediente hasi dira titulartasuna aldatu, ezaugarriak aldatu edo aprobetxamendua iraungitzeko.

Agentziari ur-aprobetxamenduen inguruan egindako kontsulten ondorioz, 27 espediente abiarazi dira epealdi honetan.

Azkenik, eta indarreko legegintza-esparruaren barruan, zehapen-espediente 1 irekitzeko proposamena egin da ur-aprobetxamenduei dagokienez.

Ur Aprobetxamenduak



## 5.3.1 Uraren Kanona

**EAEn uraren kontsumo edo erabilerari uraren kanonaren zerga ezartzen zaio. Kanon horrek plangintza hidrologikoaren helburuak lortzea du xede.**

Zerga horrek uraren egiazko edo ustezko kontsumoa zergapetzen du EAEn, uraren erabilerak ingurumenari eragin ahal diezaiokeen eraginagatik. Hain zuzen ere, honako hauei ezarriko zaie kanona:

- Erabiltzaileari hirugarrenek hornitutako uraren kontsumoari.
- Lurrazaleko uretatik, lurpekoetatik, euri-uretatik edo isurketa-uretatik, itsasoko uretatik edo beste edozein jatorritako uretatik erabiltzaileek berek zuzenean hartutako uraren kontsumoari.
- Uraren edozein kontsumo edo erabilerari, zeinahi delarik ere uraren jatorria edo hornikuntza-iturria, erabilera produktibo bati loturik egon zein ez, kontagailu homologatu bidez neurtuta egon zein ez, fakturatuta egon zein ez.


Uraren Kanonaren zerga-tasa 6 zentimokoa kontsumitutako m<sup>3</sup> bakoitzeko (1.000 litroko).

Salbuetsita dauden hainbat erabilera ere badira, eta horien artean nabarmenena etxeako erabilera (hainbat azterlan egiteko zain dagoen aplikazioa); eta, gainera, hobariak ere eska daitezke, hainbatetan zerga-oinarriaren %95era iristen delarik.


### Bildutako dirua

2012/04/20an, guztira 2.245.126€-ra iristen dira 2011. ekitaldian Uraren Kanonagatik bildutako diru-sarrerak. Hala ere, litekeena da zenbatekoa gutxi barru nabarmen handitzea, aurreko urteko zenbatekoen antzekoetara heldu arte.

**Evolución Canon del Agua ingresado**







# 5.4

Ibilguak  
mantentzeko  
zerbitzua



## 5.4. Ibilguak mantentzeko zerbitzua

2011n, Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuak 4 koordinazio-bilera egin ditu. Gainera, Ibilguak Mantentzeko Zerbitzuaren barruan egin beharreko jardunen urteko plangintza egin da. Jardun horiek honako talde hauetan sailkatu dira:

- 2010. urtean egindako jarduketan urteko txostena.
- Ibilguak mantendu eta lehengoratzeko 2011. ekitaldirako programa.
- Jarduketan lehenetasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren arabera ezartzea.
- Jarduteko irizpideak ezartzea.
- GvSig izenekoari lotutako aplikazio informatikoa, ibilguak mantendu eta lehengoratzeko jarduketarako.
- Uraren Kanonaren bitartez bildutako diru-sarrerekin egin beharreko jarduketak.
- Beste administrazio batzuekiko administrazioa, eta bereziki espezie inbaditzaileak kentzeko eta landaketan proiektuetan.

Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoan 1.351.090,30 € inbertitu dira 2011. urtean zehar. Aurrekontuaren %51 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeko, landaketak, inbaditzaileak kentzea) eta %49 mantentzeko eta ezusteko lanetan.

Mediterraneoko arroen bulegoan 556.000€ inbertitu dira 2011. urtean. Aurrekontuaren %47 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeko eta landaketak) eta %53 mantentzeko eta ezusteko lanetan. Gehien Zadorra eta Ega ibaien arroetan inbertituta da, hots, aurrekontuaren %39 eta %17, hurrenez hurren.

Bestalde, Ekialdeko kantauriar arroen bulegoan 1.123.735,43€ erabili dira. Aurrekontuaren %57 ekosistemak hobetzeko jarduketetan inbertitu da (ingurumen-lehengoratzeko, landaketak, inbaditzaileak kentzea) eta %43 mantentzeko, ezusteko eta uholdeen ondoko lanetan. Gehien Deba (%31), Oria (%26) eta Urumea (%22) ibaien arroetan inbertitu da.

● Jabari publikoaren kudeaketa

Arroko bulego bakoitzak ibilguak garbitzeko egindako jarduketan banakapena

	MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA (MAB)		
	Jarduketa	Kostua	Jarduketa guztien
Ingurumena lehengoratzea			
Soberakinak eramatea (* bakarrik MABen)	3	59.332,68 €	12 %
Espezie inbaditzaileak kentzea.			
Landaketak	77	172.380,01 €	35 %
Landaketen mantentzea	47	16.343,23 €	3 %
Mantentzea	59	233.839,14 €	48%
Ezusteak	6	10.965,93 €	2%
Uholdeak			
Jarduketa guztiak		492.860,99 €	100%
Ibilgailu teknikoaren gastua		50.154,93 €	
Gastu teknikoa		9.678,60 €	
Gsko gastua		2.543,59 €	
Metaketak			
GUZTIRA		555.238,11 €	100%

	EKIALDEKO KANTAUARIAR ARROEN BULEGOA (EKAB)		
	Jarduketa kop.	Kostua	Jarduketa guztien kostuaren %
Ingurumena lehengoratzea			
Soberakinak eramatea (* bakarrik MABen)	14	231.579 €	21 %
Espezie inbaditzaileak kentzea.	25	370.671,69 €	33 %
Landaketak	20	34.042,92 €	3 %
Landaketen mantentzea	44	105.058,54 €	9 %
Mantentzea	18	110.187,60 €	10 %
IEzusteak	53	104.701,71 €	9 %
Uholdeak	35	167.493,68 €	15 %
Jarduketa guztiak		1.123.735,43 €	100%
Ibilgailu teknikoaren gastua			
Gastu teknikoa			
Gsko gastua			
Metaketak			
GUZTIRA		1.123.735,43 €	100%

	MENDEBALDEKO KANTAUARIAR ARROEN BULEGOA (MKAB)		
	Jarduketa kop.	Kostua	Jarduketa guztien kostuaren %
Ingurumena lehengoratzea	13	249.565,79 €	21 %
Soberakinak eramatea (* bakarrik MABen)	15	205.757,64 €	17 %
Espezie inbaditzaileak kentzea.	17	137.353,98 €	12 %
Landaketak		18.027,2 €	1 %
Landaketen mantentzea		578.290,02 €	49%
Mantentzea	66		
Ezustekoak	129		
Uholdeak			
Jarduketa guztiak		1.188.994,63 €	100%
Ibilgailu teknikoaren gastua			
Gastu teknikoa			
GSko gastua			
Metaketak		162.095,66 €	
GUZTIRA		1.351.090 €	100%





# 5.5

Isurketen arloa

## 5.5 Isurketen arloa

### 5.5.1 Isurketa-baimenak

Isurketa-baimenak izapidetuz zera lortu nahi da, jabari publikora egin beharreko isurketak zer baldintzatan egin daitezkeen ezartzea, ur-masen egoerari ahalik eta eraginik txikiena eragiteko.

Ibilgu publikora isurtzen duten edo lurrera iragazten diren arazketa-sistemak ikuskatzen jarraitu dute Uraren Euskal Agentziaren arroen bulegoek.


2011n isurketak baimentzeko edo berraztertzeko (indarraldia iraungitzean) 158 eskaera berri izapidetu dira, eta joan den urtean hasitako baimen-ebazpenik gabeko espediente ugari izapidetzen ere jarraitu dute. Bestalde, 155 isurketa-baimen ebatzi dira.

Arroen bulegoek, indarreko kudeaketa-aginduaren barnean, 30 zehapen-espediente irekitzeko proposamena egin dute 2011n, isurketen arloko beren eskumen-eremuaren barnean indarreko legeria ez betetzearen ondorioz.

Gutxi gorabehera 1841 isurketa-baimenen jarraipena egin da, hondakin-uren araztegi eta isurketa-puntu nagusien ustiaketa-txostenak aztertuz, arazketa-sistemak gaizki ibiliz gero ur-jabari publikorako kaltegarri gerta daitezkeela aintzat hartuta.

### 5.5.2 Ingurumeneko Baimen Bateratua

Bestetik, ingurumena oro har babesteko helburuarekin Ingurumeneko Baimen Bateratuaren (IBB) kontzeptu berria sartu zuen 16/2002 Legea aplikatuz, arroen bulegoetako isurketa-arloak esku hartu du IPPC legetik (Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen Legea) eratorritako ingurumen-baimen integratuak izapidetzean, nola hondakin-uren isuriei dagozkien txosten lortzearen errekerimendu eta proposamenetan hala ingurumen-baimen integratuaren ebazpen-proposamenetan.



### 5.5.3 Isurketak kontrolatzeko kanona

Gaur egun Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen kanonak baino ez ditu likidatzen, eta 2011n guztira 591.275 € bildu dira, 2010eko ekitaldiari dagozkionak.





# 5.6

Ikuskaritza-arloa eta  
laborategia

## 5.6 Ikuskaritza-arloa eta laborategia

### 5.6.1 Ikuskaritza-arloa

Ura Ikuskatzeko Arloa funtsezkoa da jabari publikoa kudeatzeko. Honako eginkizun hauek ditu: URA agentziako gainerako organoei jabari publikoa jasaten ari den presioen berri ematea, ur-masen gaineko inpaktuak murrizteko tokian tokiko neurriak hartzea, eta izapidetzen ari diren emakida eta baimenetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

2011. urtean, ikuskatze-zerbitzuak honako jardun hauek gauzatu ditu, besteak beste: hiru lurralde historikoetan abiadura handiko trenbidea eraikitze lanak ikuskatzea, Bilboko saihebidia (Super sur) eraikitze obrak ikuskatzea, Arabako Bailaretako lur ureztatuak, EAE osoan ibilguak mantendu eta lehengoratzeko lanak, eta abar.

Nabarmentzekoa da, halaber, SOS Deiak erakundea abisuen arretaren arloan egiten ari den lana, edozein jardueratan baimenik gabe ibilgu publikora egindako ohiz kanpoko isurketei dagokienez. Bulegoko langileek arreta eskaini diete abisu horiei guztiei, gaueko eta eguneko edozein ordutan, lanegun edo jaiegunetan eskaera guztiei erantzunez. Gutxi gorabehera horrelako 400 abisuri eskaini diete arreta.

Uren ikuskatzaileek beren jardun-eremuko isurketa-puntu guztiak bisitatu dituzte, isuri horiek ibilgailu hartzailean eragindako inpaktua une oro ikuskatu eta egiaztatzeko.

Bestetik, isuritako efluenteen laginketa egin da, bulegoetako langileek ikuskatzeko egindako bisitaldietan efluente horiek ohiz kanpoko itxura zutela edo ingurune hartzailearentzat nabarmen kaltegarriak zirela antzeman duten kasuetan.

#### Ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako prozeduren gidaliburua

2011. urtean zehar ikuskaritzaren gidaliburua prestatu da, URAk ikuskapen-ekintzak burutzeko bete behar dituen baldintzak deskribatzeko.

Eskuliburu horri lotuta sei prozedura landu dira, ikuskapen-ekintzak sistematikoki eta plangintza-aren arabera egiteko erreferente gisa, hala nola:

- PI-01 Ikuskapen-prozedura emakidetan.
- PI-02 Ikuskapen-prozedura lan-baimenetan eta bestelako jarduketetan.
- PI-03 Jarduketa-prozedura eraginetan eta inbentarioak egiterakoan.
- PI-04 Ikuskapen-prozedura isurketa-baimenetan.
- PI-05 Hondakin-uren isurketen ikuskapenetan laginak hartzeko prozedura.
- PI-06 Jarduketa-prozedura ingurumen-jazoeretan eta abisuetan.

#### Ikuskaritza-lanen plangintza espedienteen kudeatzailearen bitartez egitea

Espedienteen kudeatzailearen obra, aprobetxamendu eta salaketen familiak ikuskapen-lanen plangintza egiteko tresna gisa ezartzea.



### Tokian bertan hartutako informazioa kudeatzeko tresna (PDA)

2011. urtean zehar ikuskatzaileentzako tokian bertan hartutako informazioa kudeatzeko tresna diseinatzen jarraitu da. Izan ere, honako hauek egin dira:

- Erabili beharreko gailua aukeratu.
- Ikuskatzaileek datuak hartzerakoan erabili beharreko datu-baseen gaiak aukeratu.
- Datuak PDAetatik PCetara transferitzeko prozesua aztertu.

## 5.6.2 Laborategia

Laborategiari dagokionez, "Uraren Euskal Agentziari ikuskapen-ekintzetan laguntzeko analisi-zerbitzuak optimizatzeke azterlana" idatzi da.


2011. urtean, URA agentziak Lasarten duen laborategian 546 lagin aztertu dira guztira, eta horietatik 401 Ekialdeko Kantauriko Arroei dagozkie, horietatik 360 laginketa programatuetatik ateratakoak eta 41 ohiz kanpoko isurien ondorio direnak. Mendebaldeko Kantauriko Arroen eremutik, berriz, 141 lagin aztertu dira, laginketa programatuei dagozkienak.

Besteak beste, honako parametro hauek aztertu ditugu: pH, SS, kolorea, eroankortasuna, OEK, solido sedimentagarriak, DBO5, nitrogeno amoniakala, nitritoak, nitratoak, sulfuroak, kloruroak, sulfatoak, metal osorako laginen digestioa, metal astunak, olio eta koipeak, zianuroak, fenolak, detergenteak, fosforoa guztira, fluoruroak, hidrokarburoak, guztizkoak, alkalinitasuna, gogortasuna guztira, kaltzio-gogortasuna eta uhertasuna.

Mediterraneoko Arroen Bulegoak administrazio hidraulikoaren erakunde laguntzaile baten zerbitzuak kontratatu ditu, bulego horretako langileek hondakin-uretatik hartutako laginen karakterizazio analitikoa egiteko.

Ekialdeko eta Mendebaldeko kantauriar arroen bulegoen jarduketa-eremuan, berriz, 445 laginketa egin ziren 2011. urtean.

URAREN laborategian aztertutako laginak



6

**Plangintza  
eta lanak**

A photograph of water cascading over a concrete dam spillway. The water is white and frothy as it falls, creating a large plume of spray at the base. The surrounding water is a deep, dark blue-green color. The dam structure is visible at the top of the frame.

# 6.1

Plangintza  
hidrologikoa



## 6.1 Plangintza hidrologikoa

### 6.1.1 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoa

2000/60/EE Uraren Esparru Zuzentarauak urak kudeatzeko printzipio berriak ekarri ditu, ur-sistemen egoera ona lortzea eta eskaerei behar bezalako erantzuna ematea uztartuz, uraren arazoizko kudeaketa eraginkorra eginez eta plan hidrologiko berriak aplikazio-ardatz gisa hartuz. Arro bakoitzerako plan bat egin behar da, aipatutako helburuak betetzeko jardun guztiak bilduta.

Uraren Esparru Zuzentaruaren eta Euskadiko Uren Legearen ildo nagusiei jarraiki, Uraren Euskal Agentziak Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren proiektua egin du, arro horien uren arloko eskumena gure autonomia-erkidegoari soilik dagokiola aintzat hartuta.

2006an hasi ziren plan hori egiteko lanak. Lehenik eta behin, fase-kronograma zehaztu zen eta kontsulta eta parte-hartze publikorako formulak ezarri ziren, funtsezko bi etapatan egituratuta:

- Uren kudeaketa-alorreko garrantzizko gaien eskema. Dokumentu honek etorkizuneko Plan Hidrologikoaren ildo nagusiak zehazten ditu, eta, besteak beste, planaren helburuak, arazo nagusien identifikazioa eta arazo horiek konpontzeko estrategia edo jardunetarako ildo nagusiak biltzen ditu. Hasiera batean egindako dokumentua gizartera zabaldu zen parte-hartze irekiko prozedura baten bitartez, eta, ildo horretan, 16 eztabaida-tailer jarri ziren abian, baita sei hilabeteko kontsulta-prozesu arautua ere. Prozesu horren ostean, Uraren Euskal Agentziaren Administrazio Kontseiluak dokumentua onartu zuen 2009ko azaroaren 18an, eta, jarraian, Euskadiko Uraren Kontseiluak aldeko txostena eman zuen 2010eko maiatzaren 19an.

- Plan Hidrologikoaren proiektua. Dokumentu hau 2009. eta 2010. urteetan egin da, aurreko etapen ezarritako ildo nagusietan oinarrituta. Garrantzi handiko dokumentua da, honako gai hauek biltzen dituena:

- Planaren aplikazio-eremuko ur-masen ingurune-helburuak zehaztea.
- Ur-masen egoeraren karakterizazioa eta ingurumen-helburuak betetzen ez dituzten ur-masen identifikazioa.
- Beste arazo batzuen karakterizazioa (eskariak gogobetetzea eta muturreko fenomenoek inpaktua, adibidez).
- Eremu Babestuen Erregistroa ezartzea.
- Neurri-programa, une honetan egoera txarrean dauden ur-masek egoera ona berreskura dezaten lortzeko, egoera onean dauden masek egoera horri eusteko, eta hornidura-eskaerak gogobetetzearekin eta muturreko fenomenoak prebenitzearekin zerikusia duten arazoak konpontzeko, uholdeei dagokienez bereziki.
- Araudia.

## ● Plangintza hidrologikoa

Plan hidrologikoa adostasun handia lortu du erakunde guztien artean, eta azpimarratzekoa da Foru Aldundiek eta partzuergo eta mankomunitateek laguntza handia eskaini dutela, baita Gobernu Zentraleko erakundeek ere, hala nola Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa eta Kostaldearen Mugapeak, biak ere Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurunearen Ministerioaren mendeakoa.

Dokumentu horren garrantziaren adierazgarri dugu planaren lehen etaparako, 2015erako alegia, aurreikusitako inbertsio kopurua, guztira 1.500 milioi euro biltzen dituen inplikaturako administrazio guztien artean Inbertsio horietako gehienek hondakin-uren arazketa eta saneamendua (%61), hornidura-sistemen hobekuntza (%18) eta uholdeen prebentzioa (%10) dute jomugan.

2011. urtean zehar, Plan Hidrologikoaren Proiektuaren parte-hartezko eta jendaurreko informazioaren prozesua amaitu da, sei hilabete iraun ondoren.

Parte-hartezko prozesu hau diseinatu da EAEko barneko arrien plangintza hidrologikoa garatzeko zein EAEk Ebro eta Kantauriko Mugapean Plan Hidrologikoa laguntzeko. Lehenengo gaineko eskumena Uraren Euskal Agentziarena da eta beste bi Mugapeena, berriz, bakoitzari dagokion Ur Konfederazioarena. Prozesua bi ekintza-multzotan egituratu da, horien hartzailen diren eragileen arabera:

- EAE uraren kudeaketari lotutako eragile nagusienei zuzendutako ekintzak. Jarduketan gai ezberdinen inguruko 12 tailer egin dira; horietara 200 eragile gonbidatu dira, eta tartean herri-administrazioak, erabiltzaileak, natura babesteko taldeak, unibertsitateak, etab.

TALDEA	LAN SAIOA/TAILERRA
TAILER MONOGRAFIKOAK	Ingurumen-helburuak
	Uholde-arriskua eta lurzoruen erabilerak
	Emari ekologikoa
	Kostuak berreskuratzea
ARLOKO TAILERRAK	Ura eta energia
	Ura eta nekazaritza
	Hornidura eta saneamendua
	Ura eta Industria
	Ekosistema urtarrak
LURRALDEKAKO TAILERRAK	EAEko Barneko Arroak
	Kantauriko Erkidego arteko Arroak
	Mediterraneoko isurialdea

- Publiko orokorrari zuzendutako ekintzak. Honako hauek egin dira:

- 9 tailer edo foro ireki garatu dira, Tokiko Agenda 21 delakoaren antolaketa-egituraz baliatuz. Egindako tailerrak eta bertaratutakoen kopurua (URAKo langileak eta laguntza teknikoak kanpo) ondoregoak izan dira:

TALDEA	LAN SAIOA/TAILERRA
TOKIKO AGENDA 21EKO TAILERRAK	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Nerbioi-Ibaizabal
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Urola
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Arabako Mendialdea
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Durangaldea
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Aguraine
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Tolosaldea
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Aiara
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Debarrena
	Tailerra: Tokiko Agenda 21 Enkarterrieta

- Tresna elektriko ezberdinak abian jarri dira, herritarrek eraginkortasunez esku hartzerik izan dezaten: Foro Birtuala [www.irekia.es](http://www.irekia.es) orrian; twitter-en (@uraEJGV), posta elektronikoan (ParticipacionPlanHidrologico@uragentzia.net). Tresna horiek [www.uragentzia.net](http://www.uragentzia.net) URAREN web orriari gehitu zaizkio. Azken honetan, plan hidrologikoaren dokumentazioa eta bestelako informazio interesgarria egon da eskuragarri.

Bestalde, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduko 74. artikuluan eta Urei buruzko 1/2006 Legearen 24. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Uraren Euskal Agentziak "Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren Proiektuari" eta Agentziako zuzendari nagusiaren 2010eko azaroaren 22ko Ebazpenaren arabera esparru horri dagokion "EAEko Neurrien Programari" buruzko dokumentazioa kontsultagai eduki du, sei hilabetez.

Une honetan, parte-hartzeko prozesuaren ondoriozko ekarpenak Plan Hidrologikoaren dokumentazioan sartzeko eta jasotako alegazioei erantzuteko lan egiten ari da.

Barneko Arroetako Plan Hidrologikoan erabilitako metodologiari jarraiki, Uraren Euskal Agentziak prestatu egin ditu Kantauriko erkidego arteko arroen eta Ebroren mugapearen plan hidrologikoak egiteko EAEk ekarritako dokumentuak, jarraian Kantauriko eta Ebroren Konfederazio Hidrografikoetara bidaltzeko, hurrenez hurren.

## 6.1.2 Ur-masen egoeraren jarraipena egiteko sareak

2000/60/EE Zuzentarauaren 8. artikulua onduzko uren egoeraren jarraipena egiteko programak ezartzeko obligazioa betez, 2011. urtean, orobat, ur-masa mota ezberdinei (lurpekoak, ibaiak, hezeguneak, trantsizio-urak eta kostaldeko urak) aplikatutako egoeraren hainbat jarraipen-sareren dagozkie ustiapena egin da, eta honako proiektu hauei dagozkie:

- EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko ibaien egoera kimikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko barrualdeko hezeguneen egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko trantsizioko eta kostaldeko uren egoera ekologikoaren jarraipen-sarea.
- EAEko lurpeko uren kontrol-sarea.

Sare horien helburua ur-masen egoera eta bilakaera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboaren informazioa eskuratzea da, horiek guztiak UEZek ezarritako kontrol-eskakizunak betez lortuta. Horien bitartez, aurreikusitako ingurumen-helburuak lortzeko neurri egokien programak ezarri ahal dira eta plangintza hidrologikoa egin eta berrikusteko tresna garrantzitsua direla uste da. Gainera, besteak beste, adierazle fisiko-kimiko eta biologikoei, emari ekologikoei edo urbazterreko basoen kalitatezko adierazleei lotutako ingurumen-helburuak ezartzen edota berrikusten laguntzen dute.

Gainera, ur-masen egoeraren bilakaera ezagutzeak aukera eman du OSPAR Hitzarmenari buruzko urteko txostenak egiteko, Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) eta Ingurumeneko Esparru Programaren ingurumen-adierazleei laguntzeko txostenak egiteko, eta estatuan edo Europar informazioa bidaltzeko beste zeregin batzuk betetzeko.

Halaber, ingurumen-datuen bilketa horri esker, Uraren Euskal Agentziak zuzenean parte hartu ahal izan du Europako Batzordeak Uraren Esparru Zuzentaruaren (kostaldeko uretan bereziki) sustatutako interkalibrazio-prozesu europarrean, eta gainera egoera, erreferentziatzeko baldintzak eta ingurumen-helburuak ebaluatzeko sistemak ekartzeko aukera izan du Uraren Esparru Zuzentaruaren ezarritako zenbait egoera-adierazletarako.

Bestalde, kontrol zehatzagoa beharrezkoa dutela jotako eremuetan jarraipen bereziak egin dira, eskuarki Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzaren edota beste administrazio batzuen (Eusko Jaurkitutako Nekazaritza eta Arrantza Zuzendaritza, Iñobe, etab.) laguntzarekin. Hartara, arazo zehatzak dituzten gainazaleko eta lurpeko ur-masen azterlan zehaztuak egin dira, hala nola, Gernikan, Lantaronen, Forondan, Oiolan, etab.

Egoeraren balorazioaren inguruan, Jabari Publikoaren Kudeaketa Arloarekin elkarlanean eta EAEko muskuilu zebra (*Dreissena polymorpha*) kontrolatzeko Jarraipen eta Koordinazio Batzordearen laguntzarekin, espezie horri lotutako lan-arlo ezberdinak kudeatzeko eskumena duten erakundeen arteko koordinazio- eta hedapen-lanak egiten jarraitu da. Zebra muskuiluaren larbak hautemateko laginketak egin dira 2011. urtean zehar Euskadiko arto guztietan, zebra muskuiluaren litekeen inbasioa eta ekonomia- eta ingurumen-alorreko litezkeen kalteak baloratu ahal izateko.

Amaitzeko, Euskadi Barneko Arroetan ur gordinen kontrol-sarea abian jarri aurreko lanak hasi dira, 140/2003 Dekretuan jasotako betebeharren ondorioz. Zentzu horretan, hiri-hornidurako kaptazioei buruzko datuak eguneratu dira, 2012. urtean zehar dagozkion laginak hartu eta aztertzen hasteko.



### 6.1.3 Informazio-sistemak

2011. urtean zehar Uraren Euskal Agentziaren Espazio Datuen Azpiegitura (EDA-URA) hobetu eta garatzeko lanekin jarraitu da. Funtzionalitate berriak gehitu eta zabaldutako datu eskuragarriak areagotu dira.

Halaber, informazio geografikoko sistemen inguruan, URAREN Espediente Kudeatzailearen aplikazioa Informazio Geografikoko Sistemarekin integratzeari ekin zaio. Horrela, automatikoki lekualdatzen dira datu geografikoak Espediente Kudeatzailean, jasotako datuen kalitatea hobetuz. Urte honetan zehar, aprobetxamendu eta lanen datuak sartu dira eta isurketen datuak sartzeko lanak egin dira.

Bestalde, Uraren Euskal Agentziaren ibai-ikuskatzaileei tokian bertan informazioa jasotzeko gailu eramangarriak emateko lanak garatzen hasi da. Tokian bertan informazioa kontsultatzea zein datuak biltzea ahalbidetzen duten PDA motako ordenagailu eramangarriak dira. Gailuek, gainera, geokopapeneko GPS tresna dute, eta baita argazki- eta bideo-kamera edo datuak GPRS bidez bidaltzeko aukera ere.

Burutzen ari den beste lan bat 1/150.000 eskalako EAeko Mapa Hidrologikoaren berrikuspena da. Horretarako, oraingo kartografia guztia berrikusi da mapan, eta diseinua eta maketazioa hobetzeko lanak egin dira.

Bestalde, Euskadiko uren egoerari buruzko informazio-sistema (EUEIS) berriaren garapena abiarazi da. Horren bitartez, gure autonomia-erkidegoko ur-masen egoerari buruzko informazioa gorde eta teknikarien eta herritar guztien eskura datu horiek kontsultatzeko tresna jarri nahi da.

Orobat, Plan Hidrologikoaren Neurrien Programari lotutako uraren alderdi ekonomikoen, kostuen berreskurapenen kostu-eraginkortasunari buruzko azterketen inguruko lotutako azterlanekin eta asko eraldatutako ur-masen behin betiko izendapenerako justifikazio sozio-ekonomikoarekin jarraitu da.

## 6.1.4 Diru-laguntzen kudeaketa eta lankidetzahitzarmenak

Uraren alorrean ikertu eta garapen-lanak egiteko aurreko urteetan jada ezarritako laguntza-lineari jarraipena eman zitzaion 2011. urtean. Hartara, Urarekin eta ekosistema urtarrekin zerikusia duten berrikuntza-, ikerketa- eta garapen-programa eta -proiektuetarako diru-laguntzen deialdi publikoa egiteko Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2011ko martxoaren 21eko Ebazpenaren bitartez, guztira 9 proiektu diruz lagundu dira, eta tartean, honako hauek aurkeztutakoak: Inatec Fundazioak, Tekniker Fundazioak, EHUko Kimika eta Ingurumenaren Ingeniaritza Sailak, EHUko Zoologia eta Animalien Biologia Zelularreko Sailak, Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurumen Sailak, Euskadiko Espeleologoek Elkarteak, Arantzadi Zientzia Elkarteak, Tecnalia Fundazioak eta Zigoitiko Ur Partzuergoa.

Bestalde, ur-ekosistemak babestu edota hobetzearekin loturiko helburuak dauzkaten hainbat erakunderekin sinatu ditugu lankidetzahitzarmenak:

- Uraren Euskal Agentziaren eta AZTI-Tecnalia Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena, besteak beste, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko ekosistemei buruzko ezagutza-maila hobetzeko, EAEko trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko ekosistemen narriadura prebenitu eta haien egoera hobetzeko eta trantsizioko eta kostaldeko ur-masei loturiko kostaldearen kudeaketa hobetzeko ekintzak egiteko. Hitzarmen honen barruan, 2011rako aurreikusitako ondoko proiektuetako eginkizunak burutu dira:
  - Estuarioetan jalkinen karakterizazioa eguneratu (II. Fasea: Oiartzun, Urola, Deba, Bidasoa, Oria eta Urumea).
  - Laginketa pasiboko gailuen aplikazioa, isurketa kontinentalen eraginaren menpeko uren egoera kimikoa ebaluatzeko orain arte erabili direnen aurreko hobekuntza-tresnak.
  - Aingira berreskuratzen: europar arroetan kudeaketa-planak ezartzeko tresna zientifiko eta teknikoaren garapena.
  - Itsaso-mailaren gorakadak eragindako Bizkaiko estuarioen eta kostaldearen uholde-arriskua LiDAR topografiko eta batimetrikoki bidez: kartografia eta eraginaren ebaluazioa.
  - Klorofila, funtsezko elementua Europako Itsas Estrategia eta Uraren Esparru Zuzentzararako: faktore ozeano-meteorologikoekiko erlazioa Euskadiko kostaldeko plataforman eta teledetekzioa klorofila-kontzentrazioak zenbatzeko erabiltzea.
  - Astrabudua inguruko (Leioa, Bizkaia) karakterizazio topografiko eta geologikoa, berreskuratze potentziala ebaluatzeko.
  - EAEko kostaldeko bainatzeko uren inguruan 2009an egindako behin-behineko profilen berrikuspena.
- Uraren Euskal Agentziaren eta IHOBE, SA ingurumen-jarduketarako sozietate publikoaren arteko lankidetzahitzarmena Oiola (Bizkaia) urtegiaren inguruan poluzioguneak lokalizatzeari eta haien ezaugarriak biltzeari buruzko jardunak egikaritzeko.
- URaren, Bilboko Portuaren eta Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren arteko lankidetzahitzarmena Bilboko portuko esparruan isuriak kudeatzeko alternatiben azterlana egiteko.



# 6.2

Ebaluazioa

## 6.2 Ebaluazioa

Ebaluazioaren arloan hainbat dokumentu eta proiekturen azterketa eta txostena egiteko lanarekin jarraitu dugu Administrazio Hidrauliko honek aplika dezakeen arau multzora egokitzen dela egiaztatzeko. Jabari Publikoaren Kudeaketarako Zuzendaritzarekin lankidetzan estuan garatzen da lan hori eta honako izapide hauek ditu aztergai:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidei buruzko txostena ematea.
- Hirigintza-antolamenduko tresnei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. artikularen l letrari jarraiki (Hasierako onarpena baino lehen, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko interes orokorreko obren eta udal-plangintzaren arteko harremana izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeak xedatzen dutena gorabehera).
- Antolamendu estrukturalako planei dagokienez lotesleak diren txostenen proposamena ematea haien hasierako onarpena baino lehen, Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 7. Artikularen k) letrari jarraiki (Hasierako onarpenaren ondoren, plan orokor, arau subsidiario, plan partzial eta plan bereziei buruzko txostena egitea. Txosten hori loteslea izango da, eta udal-plangintzaren eta jabari publiko hidraulikoaren babesaren eta erabileraren arteko erlazioa izango du gai bakarra, arloari zein ingurumenari dagozkion arrazoiengatik aplikatzekoak diren beste legeak xedatzen dutena gorabehera).
- Hirigintza-espeditenteen txostena udalen behin-behineko onespeneraren ondoko fasean, Euskadiko Lurralde Antolamenduaren Batzordean, espeditentea behin betiko onartu baino lehen.
- Txostena dagokion ingurumen-organoari ematea Ingurumen Inpaktuko Azterlanen (IIA) edo Ingurumen Inpaktuko Ebaluazio Bateratuko Azterlanen (IIEE) izapidetzearen esparruan.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako erantzuna, batez ere hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola ingurumena, legeak, uholde-arriskuaren kudeaketa eta abar.

Bestalde, ebaluazio-arlo horretatik egikaritzen den beste lanetako bat obra-arloari laguntza ematea da Uraren Euskal Agentziaren obren Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioko prozeduren jarraipenean, baita lan horien beste zenbait ingurumen-alderdiri dagokienez ere.

Horrela, ebaluazio-arloaren 2011 aldiko jarduera honela laburbil daiteke azterturiko espeditenteen zifrari dagokionez:

- Uren eta kostaldearen arloko administrazio-emakidekin loturiko 128 espediente, batez ere aprobetxamenduen administrazio-erregularizatzearekin, plangintza hidrologiakoarekiko onspen-txostenekin, eta abar.
- Hirigintza-planeamenduen berrikuspenarekin loturiko 172 espediente.
- Inpaktu-ebaluazioko izapideekin loturiko 138 espediente.
- Administrazio, partikular eta aholkularitza-enpresek egindako informazio-eskaerei emandako 136 erantzun, hainbat arlotako alderdiekin loturikoak, hala nola: ingurumena, legeak, uholdeetako arriskuak eta abar.

8 obra propioen Ingurumen Inpaktuko Ebaluazioko prozeduren jarraipena.

- Hornidurako Eraikuntza Proiektua Baias Garaian
- Tumecillo ibaia bideratzeko proiektua, Osman, Gaubeako udalerrian, Araban
- Artziniegako saneamendu-sarearen kolektoreen eraikuntza-proiektua eguneratzea
- Batan eta Zapardiel ibaietako uholdeen aurkako defentsa-proiektua, Gasteizko udalerrian
- Urbina Ezako ur-etorrien neurketa-tokia eraikitzeke proiektua
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren bideratzearen proiektu eguneratua. Basauri-Galdakao tartea, I. fasea
- Etxezuri-Larrainazubi eta Salsidu tarteen hobekuntza hidraulikoko proiektua, Getxoko Gobelata ibaiaren ingurumen-arloko egokitzapen hidraulikoaren aurrerapen-lana
- Bideratze-proiektua eta zubi berria Lizartzan



An aerial photograph showing a complex highway interchange with multiple overpasses and ramps. A large area of the interchange and surrounding fields is flooded with muddy water. In the background, there are rolling green and brown fields, some buildings, and a range of mountains with patches of snow under a cloudy sky.

# 6.3

Uholde-arriskua

## 6.3 Uholde arriskua

Uraren Euskal Agentziak 2011. urtean buruturiko lanak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2007ko urriaren 23ko uholde-arriskuaren ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 2007/60/EE Zuzentaraua eta Estatuako antolamendu juridikoan txertatzen duen 903/2010 Errege Dekretua betetzearekin lotuta daude, eta honako zeregin hauek biltzen dituzte:

1. Uholde-arriskuaren atariko ebaluazioa (UAAE) eta uholdea izateko arrisku potentzial esanguratsua duten eremuen identifikazioa (UAPEEak), 2011ko abenduaren 22ko mugaegunarekin.
2. Arriskuen eta uholde-arriskuaren mapak, 2013ko abenduaren 22ko mugaegunarekin.
3. Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak: plan horiek lantzeko ezarritako epea 2015eko abenduaren 22a izango da, eta egun horretatik aurrera Plangintza Hidrologiakoan bildu beharko dira.

Honako zeregin hauek burutu dira 2011. urtean:

- Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE): lanak amaitu eta 2011ko abenduan agiria onartu zen. Horren ondorioz, EAEn uholdea izateko arrisku potentzial esanguratsua duten eremuak (UAPEEak) identifikatu dira, uhaldi historikoen datuak erabiliz eta uholde-arriskuari buruz dagoen informazioa eta lurzoruen erabilerari buruzkoa gurutzatuz.
- Arriskugarritasunaren eta arriskuen mapak: EAeko ibilgailuen karakterizazio batimetrikorako kontratua burutzen ari da, ezarritako epeak betez.
- Uholdeetako Erabakiak hartzeko Laguntza Sistema (ELS) bat ezartzeko lanen aurrerapena, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren artean uholde-arriskua kudeatzeko hartutako Erabakia (2010eko urria) betez. Horretan, 2007/60/EE Zuzentaruarekin zerikusia duten lanak etorkizunean elkarrekin burutuko direla ezartzen da, eta tartean:
  - I. EAeko kontrol foronomikoko estazioetan alerta-atalaseak berritzen aurreratu da (abisu horria, alerta laranja eta alerta gorria).
  - II. EAEn kontrol hidrometrikoko sarea zehaztu eta datozen urteetan ezarriko da, poliki-poliki.
  - III. Eturako ur-emia neurtzeko tokia egin eta martxan jarri da eta, Ozetan, Uribarriko urtegian, aforalekua egiteko administrazio-baimena izapidetzen hasi da.
  - IV. Euskadiko Informazio Hidrologikoko Sistema eta Uhaldien Aurreikuspen Goiztiarrerako Sistema (WISKI datu-basea eta FEWS jazoera-kudeatzailea) ezartzen hasi eta 2012. urtean amaituko da.
  - V. Uhaldien jarraipenean, maila hidrometrikoko aurreikuspenak sortu dira egiazko denboran.
- Hainbat azterlan hidrauliko sustatu eta aztertu ditugu udalerrietan.



6.4

Lanak



## 6.4 Lanak

Aldi honetan hainbat jardun prestatu eta egin ditugu plangintza hidrologikoan aurreikusitako zenbait helburu lortzeko: ur-masen egoera ona eta babes egokia, ur-eskariei erantzutea, uholdeen aurkako defentsa, eta eskualdearen eta sektorearen oreka eta garapena.

Obra horiek egokituta hainbat gauza lortzen dira, hala nola kudeaketa integratua eta baliabide hidrikoen epe luzerako babesa, uren egoeraren narriaduraren prebentzioa, ur-ingurunearen eta ur-ekosistemen babesa eta hobekuntza eta kutsadura gutxitzea, uholdeen eta lehordeen ondorioak arintzeaz gain.

Uraren Euskal Agentziak 2011. urtean garaturiko jardun nagusiak honako hauek izan dira:

- Zuiako Hondakin Uren Araztegia egin da.
- Zuiako kolektore-sarea egiten hasi da.
- Oiongo saneamendu-sarearen 2. eta 3. faseak egiten hasi da.
- Baias garaiko hornidurako eraikuntza-proiektuaren ingurumen arloko izapideak egiten jarraitu da. Proiektu horren helburua da Zuia eta Urkabustaiz udalerrietako hiriguneen edateko uraren biltegiak kalitatezko ur-kantitate nahikoaz hornitzeko gai izango den hornidura-sistema eraikitzea.
- Hitzarmena LANVIrekin Lantziegoko ureztapen-sistema hobetu eta modernizatzeko.
- Vitoria-Gasteizko hegoaldeko ibaietan jarduketa hidraulikoak egiteko Vitoria-Gasteizko Udalarekin sinatutako Hitzarmenean barne hartuta dauden proiektu ezberdinen inguruan lan egin da.
- Igorren, Arratia ibaiaren gaineko Garakoi zubia ordezkatzeko lanak gainbegiratu eta egiaztatzen ari dira. Igorreko Udala egiten ari da lan horiek.
- Getxon, Gobela ibaiaren Salsidu eta Larrañazubi-Etxezuri tarteen egokitzapen hidrauliko eta ingurumenaren lehengoratzearen Proiektuaren aurreko jarduketak amaitu dira. Errekagane tarteen proiektua idazten amaitu eta dagozkion lanak 2012. urtean zehar hasiko dira. Gainera, Getxon Fadura inguruko proiektua idazten hasi da.
- Etxebarrin (Bizkaia), Euskotren Zubia ordezkatzeko lanekin jarraitu da.
- Nerbioi-Ibaizabal ibaiaren Bolueta-Urbi tarte ubideratzeko proiektua egiten jarraitu da. Gainera, Urbi-Bengoetxe tarte egiteko proiektua idatzi eta 2012an zehar enkantea atera eta egiten hasiko da.
- Oria Erdiko Hodi-biltzailearen 5. Tarte: Tolosa-Irura egiten amaitu da.
- Ibaieder ibaian uholdeen aurka babesteko lanak eta Urrestillako saneamenduarenak hasi dira.
- Ermua-Mallabia saneamenduaren 1. Fasearen xehekapena idatzi eta 2012an zehar hasiko dira lanak.
- Arrasateko San Isidro zubiaren proiektua gauzatzeko lanen kontratazioa enkantean atera eta 2012an hasiko dira.

● Plangintza hidrologikoa

- Donostian, Rekalde eta Errotaburu artean, Añorga erreka uholdeez babesteko eta saneamendua egiteko proiektuan aurrera egin da.

- Donostiako Loiola auzoan, Euskotren Zubia ordezkatzeko obrak egiten jarraitu da.

Arestian azaldutakoaz gain, garrantzi txikiagoko beste hainbat obra eta proiektu burutu dira lurralde osoan.

Gainera, Ur Jabari Publikoaren Erregelamendua aldatu zuen urtarrilaren 11ko 9/2008 Errege Dekretuaren arabera, Ur Agentziari dagokio, barneko arroetako, zein barneko arroetakoak izanda ur-jabari publikotik kanpo dauden Presa eta Urmaelen Sailkapen Proposamenak (SP), Larrialdietako Planak (LP) eta Ustiapen Arauak (UA) zein dagozkien Ezarpen Planak berrikusi eta onartzea. Zentzu horretan, hainbat presa eta urmaelen sailkapen-ebazpena egin eta larrialdietako planen berri eman da.



7

**Erakunde  
harremanak  
eta komunikazioa**



# 7.1

Uraren Euskal  
Agentzia-URAREN  
komunikazioa

Zuzendaritza honen erronka da ezagutaraztea Agentziaren funtzioak eta aurrera daramatzan ekintzak.

Horretarako, Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren zereginak hiru ildotan banatu daitezke: komunikazioa, nazioarteko lankidetzeta eta sentsibilizazioa

## 7.1 Uraren Euskal Agentzia-URAREN komunikazioa

URAREN Euskal Agentziaren ardatz nagusietakoa bat da Komunikazio eraginkorra eta gardena sustatzea. Zentzu horretan lehenetsuna da informazio hori helarazteko bideak izatea. Hori dela eta, 2011an zehar hainbat ekintza eraman dira aurrera.

Alde batetik, prentsa- kabinetea indartu da, haren bitartez Uraren Euskal Agentziaren lan ildo ezberdinen inguruko informazioa zabaltzeko. Horrez gain, hainbat hedabideren informazio eskaerak erantzun dira.

Beste alde batetik, kontsulta buzoiaeren bitartez erantzun dira herritarrek Agentziari buruz dituzten kontsulta, iradokizun eta kexak.

Horrekin batera, 2011an Uraren Euskal Agentziaren web orriaren eguneratzea hasi da ([www.ur-agentzia.euskadi.net](http://www.ur-agentzia.euskadi.net)), agentziaren lan tekniko eta administratiboa aurkitzeko baliabide erabilerrazago bat sortzeko asmoz.

Halaber, Plan Hidrologikoaren parte-hartze prozesuaren ildora sare sozialak ireki ziren, eta herritarrekin dagoen elkarrizketa zuzen horrekin jarraitu da.

Barne komunikazioaren arloan, 2011an zehar intraneta abian jarri da barne komunikazio hori azkartu eta hobetzeko nahian, hain zuzen ere. Baliabide horren helburua, funtsean, hauxe da: langileei informazio interesgarria helaraztea (berriak, atera daitezkeen plazak, ekintza nabarmenak, ekitaldi eta jardunaldi teknikoak...), eta, aldi berean, langileen arteko elkarrizketa eta parte-hartzea sustatzea

Era berean, eguneroko prentsa dossier bat prestatzen da urarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin harremana duten berriekin, eta, hilabetero barnerako Informazio Buletina prestatzen da ekintza nabarmenak, ekitaldi eta jardunaldi tekniko garrantzitsuenak nabarmentzeko.





# 7.2

Sentsibilizazio  
eta hezkuntza  
ekintzak

## 7.2 Sentsibilizazio eta hezkuntza ekintzak

### 7.2.1 On Line ikastaroa: Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta sentsibilizazioa.

URaren Euskal Agentziak "Uraren arloko hezkuntza, gaikuntza eta ingurumen-sentsibilizazioa" izeneko on-line ikastaroa abiarazi zuen, politikariei eta administrazio ezberdinetako teknikariei (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak), zein uraren kudeaketaren inguruko profesionalei eta arduradunei, ingurumen-hezitzaileei eta gaian interesa duten ikasle eta lizentziatu guztiei zuzenduta.

Ikastaro honen helburua da gizartearen kultura- eta pentsamolde-aldaketaren alde egingo duten argudioak ematea, aldaketa horren bitartez ur eta ibaiez dugun kontzeptua (ur-biltegi hutsak), uraren ekoizpenerako baliagarritasunak, funtzioak eta lurraldeari, ingurumen, ekologia, paisaia, gizarte, kultura eta emozio eta zentzumeneren alorrean, lotutako eta nazioarteko ingurumen-lege berrietan eta UEZen jasotako balioak aldatzerik izan dadin.

### 7.2.2 Ibaiari buruzko ikasgelak eta dibulgaziozko hitzaldiak

Dibulgaziozko ekintzen helburua da ur-inguruneari buruzko ezagutza areagotzea, uraren kultura berriaren printzipio eta oinarriak ikuspegi ekosistemiko eta holistikoaren bitartez ezagutaraziz. Oso balorazio ona jaso du esperientziak EAEko ikastegietako irakasle eta ikasleengandik eta jarraitzeko asmoa dago.



### 7.2.3 Diru-laguntzak

Ur arloan, ingurumenaren inguruko prestakuntza- eta sentikortze-ekintzetarako diru-laguntzak abiarazi ditu Uraren Euskal Agentziak 2011. urtean zehar. Urak berrehun eta berrogeita hamar mila euro (250.000) bideratu zituen diru-laguntza horietara, uraren arloko informazio, prestakuntza eta ingurumen-sentsibilizazioari lotutako ekimenetatik ondorioztatutako gastuak ordaintzeko.





# 7.3

Nazioarteko  
lankidetzaz

## 7.3- Nazioarteko lankidetzaz

2011. urtean zehar, nazioarteko sareekiko harreman zuzena eduki du Uraren Euskal Agentziak, lankidetzarako eta garapen iraunkorrerako duen konpromisoa betetze aldera.

### 7.3.1 URAREN parte-hartzea Europa eta mundu osoko Eskualdeetako Gobernuen Sareetan (Encore eta nrg4sd)



RED DE GOBIERNOS REGIONALES  
 POR EL DESARROLLO SOSTENIBLE

nrg4SD sarea (Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarea) abuztuaren 29tik 31ra bitartean elkartu zen Quebecen, Batzar Nagusia zela-eta. Izandako bileretan honako hauek izan ziren hizpide nagusiak: klima-aldaketa, biodibertsitatea, ur-baliabideak eta saneamendua eta garapen iraunkorra.

Saio horietan Europar Batasunerako Eusko Jaurlaritzako ordezkaria den Marta Marinek eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren barruko Uraren Euskal Agentzia-URAKo Erakundeekiko Harremanetarako Zuzendaria den Enrique Urrutiak parte hartu zuten. Quebecen izandako batzarraz baliatuz, alde biko bilerak egin ziren Mexiko, Peru, Ekuador, Argentina, Angola, Brasil eta Guinea Bissauko gobernuen ordezkariekin.

URAK, Quebecen abuztuaren 29tik 31ra izandako Urteko Batzar Nagusian esku hartzeaz gain, hitzaldi eta mintegietan ere parte hartu zuen, kideen artean informazioa, esperientziak eta praktika hobeen elkartrukea errazteko, zein Eskualdeko Gobernuak garapen iraunkorraren alde egiten dutena aitortu eta egin ahal dituzten erabaki edo elkarteak sustatzeko.



Quebec, 2011ko abuztuak 30

● Erakunde harremanak eta komunikazioa



Europako herrialdeen ingurumen-konferentzia EBren esparruan dauden herrialdeetako ministro eta buruzagi politikoen plataforma da, eta herrialde mailan dauden ingurumen arazoak eztabaizatzeko sortu zen.

Uraren Euskal Agentzia plataforma horren kide da eta Uraren inguruko lantaldea zuzentzen du Aragoirekin batera.

Uraren Euskal Agentziak, "Steering Group Meeting" taldeak 2011. urtean Pilsenen (Praga) 2011ko martxoaren 15etik 20era eta Assenen (Holanda), azaroaren 3tik 4ra egin zituen bi bileretan esku hartu zuen.

## 7.3.2 PNUD eta ART/PNUD: Nazio Batuen Garapenerako Programak

URaren eta PNUDeren arteko erlazioa elkarren artean sinatutako hitzarmenean datza. Hitzarmen hori zuzenean lotuta dago Uraren Kanonaren %5 Saharaz haraindiko Afrikan aurrera eramaten ari diren hornidura eta saneamenduko lankidetzaproiektuetara zuzentzearekin.

Momentu honetan bi proiektu daude martxan PNUD eta ART/PNUD erakundeekin:



PNUDen kasuan, Liberian, gobernuari arlo teknikoan eta antolaketan laguntzeko. Beharrak ugariak dira, besteak beste: uraren barnean kokatzen diren eragileen organigrama argitzea edo hornidura eta saneamendu sareak egituratzeaz arduratuko diren teknikariak trebatzea. 2009-2010 urteetako Uraren Kanonetik 300.000€ bideratu dira proiektu honetara.





● Erakunde harremanak eta komunikazioa

ART/PNUD-ekin, berriz, Salvadorren egingo da proiektua, hain zuzen ere Torola ibaiaren arroan. Uraren arloan trebakuntza eta formakuntza jorratuko da, batez ere. Kasu honetan, emandako diruaren heren bat ura baliabidea berreskuratzeko erabiliko da, horrela 400 familia horniketa jasoko dute, 2.000 pertsona inguru, eta etorkizunean 4.000 pertsonara heltzeko ezinbesteko azpiegitura. Salvadorreko proiektuarako 2011. urteko kanoneko 150.000€ euro erabiliko dira



Era berean, Uraren Euskal Agentziak nazioartean Milurteko Helburuen 7C helburuak betetzeko %1aren alde egiteko PNUDk Genevan biltzen duen Gidaritza Batzordean esku hartzen du.

Tuniseko mintegian (ekainak 27-30) zein Uraren %1eko tasa solidarioa nazioarteratzeko Idazkaritza osatzeko Genevan izandako bileran (urriak 25-26) esku hartu zuen Uraren Euskal Agentziak.



Tunis, 2011ko ekainaren 28a



### 7.3.3 World Water Week

Azken urteetan egin den bezala, 2011 honetan ere "World Water Week" foroan esku hartu zuen Uraren Euskal Agentziak Stockholmen, uraren arloan arduratutako mundu osoko zientzialari, enpresa pribatu eta erakunde publikoen artean ikuspegiak eta esperientziak elkartrukatzeko. 2011n, Aldaketa globalei erantzuna: ura mundu hiritartuan izan zen gai nagusia. Foroan zehar, gainera, bilerak egin ziren Hego Sudan eta Liberiako Gobernuen ordezkartzarekin, Uraren Kanonaren %5 Afrikako herrialderik kalteberenen gaikuntza, sentsibilizazioa eta prestakuntzara zuzentzeko ezarritakoa betez



# 7.4

Ekitaldi eta  
jardunaldi teknikoak

## 7.4 Ekitaldi eta jardunaldi teknikoak

2011. urtean zehar hainbat ekitaldi, eztabaida-foro eta jardunaldi tekniko izan dira, eta horietan gizartearentzat oso interes handia duten gaiak eta arazoak jorratu dira. Gainera, horiek guztiak funtsezko tresna dira beste erakunde eta entitateekin nahiz hiritarrekina komunikatzeko

### 7.4.1 Bisita Getxoko Gobela ibaiaren inguruan Jolaseta eta Leioako zubietan uholdeei aurrea hartzeko egin diren obretara



2011/09/16

Pilar Unzaluk, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak, Iñaki Urrizalkik, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiak eta Imanol Landak, Getxoko Alkateak Gobela ibaiaren inguruan gertatzen diren uholdeak saihesteko egindako obrak bisitatu zituzten. Uraren Euskal Agentziak egindako obra horiek Getxoko Udalaren laguntzarekin burutu dira eta etorkizunean segurtasun-maila handia ahalbidetuko duen plan zabal batean barne hartuta daude.

## 7.4.2 Gatz larrainak ematea gatz haranean



2011/07/07

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak, Pilar Unzaluk eta Iñaki Achukarrok, Lurralde Plangintza eta Uren sailburuordeak, Uraren Euskal Agentzi URAREN izenean, gatz larrain eremuen bana jaso zuten Malentxo Arruabarrena, Añanako Gatz Harana Fundazioko lehendakariaren eskutik.

Ekitaldi hori URAk eta Añanako Gatz Harana Fundazioak Gatz Harana, eta zehazkiago larrainak, berritzeko sinatutako hitzarmenaren ondorio da. Guztira 352 larrain berrituko dira



### 7.4.3 URAk, Uraren Euskal Agentziak, Bidasoa, Nive eta Nivelles arroetarako plangintza hidrologikoari buruzko jardunaldi teknikoa antolatu zuen

Uraren Euskal Agentziak jardunaldi teknikoa antolatu zuen Donostian 2011ko maiatzaren 31n, eta bertan, Ingurumeneko eta Nekazaritza eta Itsas Inguruneko Ministerioak, Kantauriko Ur Konfederazioak eta Frantziako zerbitzu estatalek (Agence de L'Eau Adour Garonne, Conseil général des Pyrénées-Atlantiques eta Conférence Atlantique Transpirense) parte hartu zuten. Jardunaldi horren helburua Espainiak eta Frantziak Ekialdeko Kantauri aldean partekatzen dituzten arroetarako plan hidrologikoak, hots, Bidasoa, Nive eta Nivelles ibaienak, harmonizatzea izan zen.

### 7.4.4 Bilboko Triatloia 2011

URA - Uraren Euskal Agentzia Bilboko lehen Triatloiaaren laguntzaileetako bat izan zen Bilboko Udalarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera.

URA - Uraren Euskal Agentziatik azken urteetan administrazio desberdinen lana azpimarratu nahi izan zen saneamendu, uraren garbiketa eta isurien inguruan, begi-bistara sumatu daitekeen aldaketa ekarri baitio uraren kalitateari.



2011/05/28

Triatloi honen aurkezpen-ekitaldi moduan, bere jaioterria gurutzatzen duen itsasadarrean igeri egiteko aukera izan zuen Virginia Berasateguik. Triatloilari euskaldunak proba honen laguntzaileak diren erakunde desberdinen ordezkarietaz inguratuta egon zen, eta horien artean Iñaki Urrizalki, Ura - Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia.



## 7.4.5 URA, Uraren Euskal Agentzia, "Ibaiak bizitzeko" gazte-foroarekin elkarlanean aritu da

URA - Uraren Euskal Agentzia Gazte Foroarekin elkarlanean aritu zen Vitoria-Gasteizen, Salburuko hezeguneetan eta Europa Jauregian "Ibaiarekin bizi eta ez ibaiaren kontra" lemapean burututako jarduketaren garapenean.

Bereziki gazteenei zuzendutako parte-hartzezko proiektua da Gazte Foroa. Oraingo honetan, Ebro ibaiaren arroko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleek ibaiak aisialdirako eta elkarrekin gozatzeko gune bezala bizitzen ikastea izan zuen helburu.



2011/05/19

## 7.4.6 Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Ur Konfederazioak urpean geratzeko arriskuei buruzko Jardunaldi Teknikoa antolatu zuten

Jardunaldi honek "Uholde arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko 903/2010 EDren ezarpena Kantauri eremuko mugape hidrografikoetan" izan zuen izenburu eta Euskalduna jauregian egin zen.



2011/04/12

Bertan Autonomia Erkidego ezberdinetako administrazioaren eta laguntza teknikoaren arloan lan egiten duten hainbat ordezkari hartu zuten parte. Guztien artean, Kantauriko mugape hidrografikoetan uholde-arriskuak ebaluatu eta kudeatzeko uztailearen 9ko 903/2010 Errege Dekretuan aipatzen diren betebeharrak ezartzeko egiten ari diren lanen inguruan eztabaidatzea zuten helburu. Dekretu honek uholde arriskuen ebaluatze eta kudeatzeari buruzko 2007/60/CE europar legedia egokitzen du.

## 7.4.7 Uraren Mundu Eguna

Martxoaren 22a Uraren Mundu Eguna izendatzea onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1992ko abenduaren 22an. Ordutik, 17 aldiz ospatu da.

2011. urtean “Hirietarako ura: hiri desafioari erantzunez” lelopean ospatu zen Uraren Mundu Eguna, herritarren arreta hirietako biztanleriaren hazkundearen eraginei, industrializazioari eta klima aldaketak sortzen dituen zalantzei edota gatazkak eta hiri-ur horniketa sistemetan eragiten dituen hondamendi naturalei zuzentzeko helburuarekin.

Uraren Euskal Agentziak Bilboko Ur Partzuergoaren instalazioetan elkartu zituen euskal erakundeak.



2011/03/22

Ekitaldian, Pilar Unzalu, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua, Iñaki Achucarro, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea, Iñaki Urrizalki, URA – Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia, eta Ibon Areso, Bilboko Ur Partzuergoaren lehendakaria jardun ziren.

## 7.4.8 Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren partehartze prozesuaren emaitzen aurkezpena

URA - Uraren Euskal Agentziak, 2010eko azarotik Euskal Autonomia Erkidegoko Barneko Arroen Plan Hidrologikoaren proiektua osatzeko aurrera eramán duen parte hartze prozesuaren ondorioak aurkeztuko zituen.



2011/06/06

Iñaki Atxukarrok, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordeak eta Iñaki Urrizalkik, Uraren Euskal Agentziaren zuzendariak prozesu honetan egon diren eragileen parte-hartzea eskertu zuten eta etorkizunera begira aurrera eramán beharreko lanen azterketa egin zuten: gure arroetan lortu beharreko kalitate-helburuak lortzea, hiri-horniduraren bermea hobetzea, gure lurraldeetan uholde arriskuak txikitzea eta guzti hori ura arrazionalki eta modu iraunkorrean kudeatuz eta ekosistemak zainduz.

## 7.4.9 EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen bilerak.



2011. urtean zehar EAEn zebra muskuilua kontrolatzeko jarraipen- eta koordinazio-batzordearen hainbat bilera egin dira. Horren baitan arloan eskumena duten erakunde ezberdinak (Uraren Euskal Agentzia, Kantauriko Ur Konfederazioa, Aldundiak, Partzuergoak, etab.) biltzen dira, honako helburu hauek izanda:

- Sortzen den informazioa administrazioen artean partekatzea.
- Ekintza osagarriak egiteko administrazioen arteko koordinazioa bultzatzea.
- Baterako ekintzak abian jartzeko erakunde arteko lankidetzak.
- Zebra muskuiluaren populazioen bilakaeraren jarraipena.
- Etorkizunean zebra muskuilua hedatzea ekiditea.
- Sortuta dauden populazioak kentzea.
- Espeziearen inguruko informazioa zabaldu eta prestakuntza eskaintzea.







## 7.4.10 Udalsarea 21

Uraren Euskal Agentzia Udalsarea 21eko Batzorde Teknikoko kide da, horren helburua Euskadiko udalerrietan garapen iraunkor eraginkorra lortzea izanik.

2011. urtean zehar, Uraren Esparru Zuzentaruak uraren udal-mailako kudeaketa iraunkorrean dituen ondorioak aurkeztu zituen URAk, eta horien artean Zuzentarau horren printzipioak eta Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden Plan Hidrologikoen helburu nagusiak nabarmendu zituen.

Halaber, Uraren Ekitaldearen inguruko bilerak ere egin dira, udalerrien beharrak identifikatzen eta uraren inguruko ekintza eta praktika egokiak biltzen lagunduko duen agiria prestatzeko helburuarekin.

## 7.4.11 URA - Uraren Euskal Agentziak Ecoeuskadi 2020 Euskadiren Garapen Iraunkorerako Estrategian parte hartu du



2011/10/11

Pilar Unzaluk, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak EcoEuskadi 2020, 2010-2014rako Euskal Enpresako Ekoeraginkortasunerako Programa gisa, eta Uraren Euskal Agentziak garatzen dituen Euskadiko Ur Politikak aurkeztu zizkien Janez Potocnik, Ingurumeneko Europar Komisarioari eta eskualdeko ministroei.

## 7.4.12 Uraren eta saneamenduaren kudeaketa Arabako Kontzejuen ikuspegitik

Uraren Euskal Agentziak AKEk urriaren 20 eta 27an "Uraren eta saneamenduaren kudeaketa Arabako Kontzejuen ikuspegitik" izenburupean antolatutako jardunaldietan lagundu zuen Arabako Aldundiarekin eta beste erakunde batzuekin elkarlanean. AKEk ia azken hamar urteetan urtero antolatu dituen jardunaldi horiekin Arabako Kontzejuetan dauden kezak argitu eta partekatzen lagundu nahi da.





**Ur Agentzia / Agencia Vasca del Agua**

C/ Ono, 1-3

01010 Vitoria-Gasteiz

Álava-Araba

Tfn.: 945 01 17 00

[kontsultak\\_uragentzia@uragentzia.net](mailto:kontsultak_uragentzia@uragentzia.net)

[www.uragentzia.euskadi.net](http://www.uragentzia.euskadi.net)